

EUSKARA BIZI DA TREBIÑU SAGARDOTEGIAN

Markinez-Amozarrain sendikoak euskaraz aritzen dira etxean eta lantokian. Euskaldun asko hartzen dute haien ogibide den sagardotegian. Trebiñun daude, eta izen bereko sagardotegian euskara lehen lerroan izan dadin saiatzen dira. Lazarraga Saria ere irabazi dute, eta xumetasunez jaso: “Egongo da, hor nonbait, euskararen erabileraren alde gu baino askoz gehiago egiten duen jendea”.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Trebiñu Konderria du izena, 260 kilometro koadro, 1.460 biztanle 40 herri txikitan banatuak: Agilu, Albaita, Añastro, Araiko, Arana, Argote, Armentia, Arrieta, Askartza... Hain zuzen, Askartza dugu helburu, hantxe baitugu Trebiñu sagardotegia. Bertan jaiotako Koldo Markinezek (Askartza, 1958) hartu gaitu, administrazioz Burgos den baina Arabaren bihotzean den euskararen lurtean: “Errotalde, Torreondo, Riturri, Rutiaran, Uranzo, Turrran, Portaleta, Garaia, Sarria... horriek hemengo leku izenetako batzuk. Hemengo toponimia euskararena da”. Araban Trebiñu, Arabaren parte izan nahi bertakoei behin eta berriz adierazi dutenez. Haatik, Burgos, Trebiñu, eta barrendegiko Askartzan, Trebiñu sagardotegia, Bai Euskarari Elkartearen Lazarraga Sariaren jabe egina.

30 urte dira Koldo Markinez sagarrondoak aldatzen hasi zela bertako soroetan. Hamabi urte daramatza, berriz, bi semeekin batera sagardotegian lanean, emaztearen babesarekin. Nekazaritza-ingeniaritza ikasketak egina, Markinezek bazekien zertan ari zen.

Hala ere, Askartzan sagarrak bazuen eragozpenik franko: altuera, 650 metro-tan baitago Askartza. “Teknikari naizen aldetik, galdera horixe ibili nuen buruan, nolako sagarra izango ote genuen garaiera honetan –baina ikusi dugu kalitate onekoa dugula hemengo sagarra–, eta nolako sagardoa egingo ote genuen, eta horri dagokionez ere sagardo ona egiten dugula jabetu gara”. Hala ere, kezka, 650 metroko garaiera Askartzak. Hozta eta izotza. “Udaberriko izotza dugu arazorik handiena. Gaur egun, hala ere, teknikaren bidez konpontzen dira eragozpen horiek”. 2.500 sagarrondo inguru dituzte, “eta gehiago landatzeko prest gaituzu”, diote, sagardotarakoak denak; sagar-zukua barne.

Asturiasko (Espainiako Estatua) eta Gipuzkoako barietatea aldatuak dituzte Askartzan, nahiz bertara hobeto egokitu Asturiaskoa, Markinezek dioenez. “Gipuzkoan, adibidez, sagarrak gehienak itsaso ondoan daude. Asturiasen, berriz, itsaso ondoan ez ezik, baita mendialdean ere”. Eta, inondik ere, hango mendialdeko barietatea ezin egokiago dator Trebiñu Konderriko Askartzara.

MUGARRIAK

Koldoren seme Jon Markinez Amozarrainek (Gasteiz, 1993), jaso zuen, anaia zaharrago Julenekin batera (Gasteiz, 1988), Lazarraga Saria. Berak eman ohi du, askotan, sagardotegiaren berri. “Gure gurusoek hasi zuten proiektua, aitaren jaiotetxean. Orain jangela dagoen honetan, ukuilua zegoen. Hasieran, lau mahai besterik ez zeuden jangelan, 40 laguni ematen ahal genien jaten. Nahikoa genuen horrekin. Orain baino prekararioagoa zen dena”. Harrera ona izan zuen sagardotegiak, eta gero eta jende gehiago etortzen hasi zen. “Eta etorri ezinik ere gelditu izan zen jendea, lekurik ez eta. Jatetxea handitu behar izan genuen gero”. Orain 120 lagun sartzen dira sagardotegian. “Sukaldea ere handiagoa da orain. Sei metro koadro zituena hasieran, eta 35 ditu orain. Upelak ere gehiago eta hobeto banatuak ditugu orain”, esan du Julen sukaldariak.

Sagardotegia esan eta Hernani, Usurbil, Astigarraga dira inork emango lituzkeen izenak. Han dago ohitura, tradizioa, kultura... Eta Jonek: “Bai, han da kultura handiena, baina hemen ere



MARKINEZTARRAK. EZKERRETIK ESKUINERA: JON, KOLDO ETA JULEN MARKINEZ. AITAK DUELA 30 URTE LANDATU ZITUEN LEHEN SAGARRONDOAK TREBIÑUN ETA DUELA HAMABI URTE JARRI ZUEN ABIAN SAGARDOTEGIA BI SEMEEN LAGUNTZAZ ETA EMAZTEAREN BABESAZ.

ikasten hasita dago jendea. Gure sagardotegira etorri baino lehen, adibidez, askok inoiz ez zuten sagardotegirik ikusi. Upelak hortxe daudela esan, altxatu eta bertatik hartu behar dutela esan, eta batzuek: ‘Eta ez daukazu sagardoa txarroan ateratzerik? Ez daukazu botilan?’, galdetzen zuten. Julenek anaia gaztearen esaneratik jo du: “Jendeak txotxetik edaten ikasi du”. Aitaren txanda da: “Zera izan zen geure buruari egin genion lehenbiziko galdera: Jarrita, ala zutik jango dute gure sagardotegiko bezeroek?”. Eta bertako ohi-turaren arabera jotzea erabaki zuten, jarrita jatearen alde egin zuten. “Baina buruan ibili genuen galdera”, dio Koldo Markinezek.

GASTEIZTIK BERTARA

Urtean behin sagardotegira joateko ohi-tura aski zabaldua da bazterretan. Askartzakora, berriz, urtean behin baino gehiagotan jo ohi du zenbaitek, Gasteiztik hoguei minutura baitago Trebiñu. “Gipuzkoa aldera joatea, autoa edo autobusa hartuta, bazkaldu edo afaldu eta itzultzea, ez dago astebururo egiterik. Hona, berriz, Gasteiztik hoguei minutura gaudenez, hilean behin ere etorri ohi dira batzuk”, esan du Jon Markinezek. Eta Koldok: “Mendiz ere etorri ohi da jendea Gasteiztik, bi orduko bidean”. Mendi txangoa eta gero, freskatu eta jan, eta gero, autobusa hartu eta etxera egiten du bezeroak.

Menua bat eta bera da beti sagardotegian. Askartzan ere, jendeak duen sagar-

dotegi ohitura txikia gorabehera, betiko menua nahi du jatunak. “Horixe nahi du jendeak, txuleta! Bestelako menu bat ere eskaini ohi dugu denboraldia igaro eta gero, baina jendeak ez du dudarik: ‘Ez, ez, nik sagardotegiko menua nahi dut: txuleta!’. Horrela da”, esan digu etxeko aitak.

Sagardotegiak, bestalde, ezohiko giroa eskaintzen dio bertaratzen denari, Julenek dioenez: “Sagardotegia bestelako lekua da, ohiko ostatu batean egiten ez dituenak egiten ditu jendeak hemen: kantatzen du, jaikitzen da, txotxetik edaten du, ondoan duenarekin hitz egiten du... Giro berezia eskaintzen du sagardotegiak. Nabarmena da. Trikitiarekin etortzen dira batzuk, kantari hasten dira beste batzuk... Kantutegiak ere baditugu,

BABESLEA: LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA



UDAN EUSKARAZ *Blai!*

ARGIA 1919 - 2019



jendeak eskatzen ditu eta kantatzen du". Bertan nahasten dira batzuk eta besteak. Gasteiz hogeia minutura, eta hurrago dago Miranda Ebro. "Jende asko etortzen zaigu handik. Bestelako mundu bat da hori. Atetik sartu orduko nabarmentzen dira Mirandakoak". Bestelako eitea, nonbait, Jonek oharrarazi duenez. "Grazia egiten die sagardotegiko giroak", esan digu Julenek, eta iltzea buruan jotzen asmatu du Koldok: "Exotikoa zaie sagardotegia. 'Sagardoa hartzera jaiki egin behar dugula?', edo haiek menuaz galdetu eta guk: 'Ez, menu bakarra dugu hemen, sagardotegiko menua, hau sagardotegia da'. Hala ere, urteak igaro dira, eta jendeak ikasi egin du, sagardotegiko kulturaz jabetu da".

BAI EUSKARARI, LAZARRAGA SARIA

Euskaldunak dira Markinez Amozarrain familiako kideak. Eta euskaraz ari ohi dira sagardotegian, hala beraiek, nola bezeroetako asko, Jonek dioenez. "Bai, euskara asko entzuten da hemen. Uste duguna baino gehiago". Beraiek ere saiatzen dira giro hori pizten. Bertso afariak egin izan dituzte, mintzalagun taldeak hartu dituzte, bateko eta besteko euskaltegiak ikasleak -Mirandakoak barne-, kantua ere noiznahi da sagardotegian. Hortik etorri da Bai Euskarari Elkartearen Lazarraga Saria. "Ezustea izan genuen. Aurreko batean ere joanak ginen sari banaketaren ekitaldira, ikustera, eta joan den azaroan ere halaxe joan ginen, ikustera. 'Egongo da, hor nonbait, euskararen erabileraren alde

gu baino askoz gehiago egiten duen jendea', pentsatzen genuen. Eta, orduan, gure izena esan zutenean, hura ezustea", azaldu du Jon Markinezek: "Pentsatzen jarrita, guk uste duguna baino garrantzizkoago gara euskaldunentzat, Trebiñun gaude la kontuan hartuz". Uste dutena baino

"Ohiko ostatu batean egiten ez dituenak egiten ditu jendeak sagardotegian: kantatzen du, jaikitzen da, txotxetik edaten du, ondoan duenarekin hitz egiten du. Trikitiarekin etortzen dira batzuk, kantari hasten dira beste batzuk. . . Kantutegiak ere baditugu, jendeak eskatzen ditu eta kantatzen du"

Koldo Markinez



laguntzaile hobeak dira euskararentzat, arnagune ere bai baitira. Etxetik dakarte euskara semeek, heldutan ikasia du, berriz, aita. "Hogeitaka urterekin ikasi nuen, Iruñean, ikasle nintzen garaian". Bidean, AEK, IKA eta bitarteko hainbat eza-gutu zituen nekazaritza-ingenieri honek.

Trebiñu. Askartza. Araba. Burgos. Euskaraz bertako sagardotegian, baina Euskadiko sagardoaren jatorrizko izendapenetik kanpo bertako sagardoa eta sagar-zukua. "Trebiñun gaudelako! Sagarrondoak ditugu, sagarrak, sagardoa... Gutxi egiten dute zirkulu osoa. Baina administrazioari dagokionez ez gaude Euskadin! Arabaren bihotzean, eta Euskaditik kanpo!". Politikariek egundaino konpondu ez duten auzia.

Txotx egin aurretik, azken gogoeta egin digu Koldo Markinezek. Sagardoaz ari da, jakina: "Sagardo tradizionala egiten ari gara Euskal Herrian. Etorkizunerako sagardorik, ez. Sagardo tradizionala, jende modu jakin batentzat, sagardotegi kultura duenarentzako sagardoa, beti-betiko sagardoa. Kontserbadoreak gara horretan. Jendearekin hitz egin, baita sagardogileekin ere, eta horixe defendatzen dute, betikoa, 'Hau da onena', diote. Baina bada beste jende asko bestelako sagardoa nahi duena, errazago edango dena. Horretan ari gara lanean, sagardo berezia egiten, etorkizuna besterik izango da-eta. Etorkizunak sagardotegia, eta sagardoa, guztiei irekitzea ekarriko du, nire ustez, denentzako sagardoa egitea, AEBetan, Argentinan, Errusian... edango dutena. Horretan ari gara lanean, sagardo berri bat egiten, komunitate guztientzat", egin nahi izan du ohar Koldo Markinezek sagardo berezi horretatik guri edaten eman aurretik. Txotxetik. ●